

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 19ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretuak:**

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2018 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko landa bideak mantentzea xede duten gauzazko laguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketa, zeinak ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren, bai eta 2018rako haren deialdia ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2018 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren barruko basogintza laguntzen plana arautzen duten oinarriak aldatzea, ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak eta martxoaren 7ko 11/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatuak, bai eta 2018rako haren deialdia ere.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2018 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. Onartzea 2018ko ekitaldian arte eszeniko eta musikaletan trebatzeko ekintzetarako laguntzen deialdi publikoa eta horren oinarriak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2018 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. Onartzea Gazteriarren Foru Erakundeak 2018rako antolatutako udako jardueretan izena emateko kuoten prezio publikoari buruzko arautegia.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 128/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea 2018ko apirilaren 3ko Foru Gobernu Kontseiluaren ohiko bilkurarako deirik ez egitea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 129/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea kreditua esleitzea Arabako Foru Aldundiko eraikinen zaintza eta segurtasun zerbitzuaren kontratu esleipendunaren alde, 2018ko martxoaren 1etik aurrera beste eraikin bat sartzeko.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 130/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea Fontechako Administrazio Batzarrari baimena ematea mailegua hitzartzeko herri horretan lurzati bat eskuratzeko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 131/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. 2017ko ekitaldiko zenbait aurrekontu aldakuntzaren espedienteak onartzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 132/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskaturik, 6/2018 konpromiso kreditua birbanatzeko espedientea, 450.000,00 eurokoa, "Laudioko Lamuza parkea

zaharberritzea” izeneko gastuen egoerako partidan, aurrekontu esleipena doitzearren lanak egiteko erritmoari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 133/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea kreditu transferentziako 17 eta 19/2018 espedienteak, Nekazaritza Sailak eskatuta, 8.085,47 euroko eta 10.000,00 euroko zenbatekoekin hurrenez hurren, “Añanako 2017 LGE” eta “Izkiko 2017 LGE” partida berriak funtsez hornitzeko, 2017tik ordaindu gabe dauden zenbatekoak ordaintzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 134/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onestea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eta Gizarte Zerbitzuen Sailak eskatuta, GOFEn aurrekontuko 1/2018 baliogabetze bajaren espedientea eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 13/2018 gastuaren zuzenketa teknikoaren espedientea, 450.000,00 euroan, “GOFek San Prudentzio kalean dituen bulegoak” izeneko partida sortu berrirako.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 135/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmena izenpetzea, “Arrakasta” unibertsitateko arrakasta akademikorako programa garatzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 136/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea Transformación Agraria, S. A. S. M. E. M. P. (TRAGSA) enpresari eskatzea Gaubeako Lurzati Bateratzearen Zonako II Sektoreko bide sarea (2. fasea) eraikitzea. Zenbatekoa: 286.505,78 euro; gauzatze epea: 2019ko abenduaren 31.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 137/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea Gasteizko UHUNen Ikastegi Elkartuari 2017ko ekitaldirako egindako ekarpena justifikatzeko epea luzatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 138/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea Santa Maria Katedrala Fundazioaren alde 2018ko ekitaldirako transferentzia egitea.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 139/2018 Erabakia, martxoaren 19koa. Onartzea 2018ko apirilaren 13ra arte luzatzea “Bikuñan (Araba) 150 m³ko andel berria eraikitzeko” proiektua gauzatzeko epea, maiatzaren 30eko 323/2017 Erabakiak esleitutakoak.